

txi
kitto!

2026ko otsaila



MAKILKADAK
S A N T A
A G E D A R E N
O M E N E Z

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16



Argitaratzailea

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo / Ohiane Zabala

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Ekhi Belar

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



-Nire aitak ez du ilea moztu 10 urtetan.
-Alaaaa!! Zer da ba, lehoia?
-Ez, burusoila

- Mikel, nola banatuko zenituzke 3
patata 10 lagunen artean?
-Oso erraz, andereño! Patata-purea
egiten!



**Bazen neska bat hain altua,
hain altua, hain altua,
jogur bat jaten zuenean sabelera
heltzen zenerako kadukatuta zegoela.**

- Aita, aita, utziko didazu telebista
ikusten? Mesedez, mesedez, mesedez!!!
- Baaaaale seme, baina piztu gabe.



**BAZEN BEHIN FUTBOL-JOKALARI BAT
HAIN TXARRA, EGUN BATEAN GOL BAT
SARTU ETA ERREPikapenean HUTS EGIN
ZUELA!**

Zenbat hesur dauka zure
gorputsak? 208, maisu. Ez!
207 hesur bakarrik dauka giza
gorputsak. Bai, baina ... gaur
oliba hesur bat irentsi dut.



ITURBURUKOAK SANTA ESKEAN



TESTUA: **EKHI BELAR** / BIDEOA: **OIHANE ZABALA**

Iturburu ikastolako 6. mailako ikasleek edarto ospatu zuten Santa Ageda bezpera, otsailaren 4an. Izan ere, eskolatik irten eta Eibarko erdigunean gora eta behera ibili ziren santaeskean, herriko toki ezberdinetan geldialdiak egin eta herrikideen dirua batzen. Gero, baserrietan zehar ibili ziren gauza bera egiten eta eguna borobildu zuten horrela. Santa Ageda bezpera egun berezia izan ohi da eibartarrantzat eta makila hartuta kantuan (eta eskean) ibiltzeko ohitura dugu aspaldidanik. Santa Agedaren irudia Aginagako San Roman ermitan dago eta Iturburukoak ez ziren haraino joan, baina tira, egun horretan egin zuten ibilbidea ez zen makala izan. Ziur egun bat lehenago jandako San Blas opilek asko lagundu zietela! Orain, santaeskean jasotako diruarekin merendola egiteko asmoa dutela esan digute. On egin!

BIDEOA
YOUTUBEN



A ESKEAN OAK SANTA



Intza Amillategi Alberdi
11 urte

Udaletxean sartu ginen abestera eta soinu berezia entzuten zen. Bestalde, balkoietatik dirua botatzen ikustea ere polita izan zen.

Pello Vega Fernandez
11 urte

Egun horretan gehien gustatu zitzaidana baserrietara joatea izan zen, ibilbidea nahiko motza izan zelako eta animalia asko zegoelako.



Fatima Jebari Elamoun
12 urte

Argatzako eta Sansaburuko ikasleekin batera abestu genuen unea gustatu zitzaidan gehien, jendea elkartu zelako.



Ian Blanco Jaio
11 urte

Niri gehien gustatu zitzaidana oihala eramatea eta dirua jausten ikustea izan zen, eta lurretik dirua batzea.



ITURBURU

6. mailako ikasleak Santa Ageda bezperan Eibarko kaleetan zehar ibili ziren kantuan goiz-goizetik. Arratsaldean, 3. ziklokoak baserrietatik ibili ziren eta azken orduan, ikastetxeko ikasle guztiak jolastokian elkartu eta abestu genuen. Natura esnatzeko ahalegin guztiak egin genituen.



URKIZU

5. eta 6. mailako ikasleok, Amets programaren bitartez, Reale Arenara bisita egin genuen. Bertan, Txurdin ezagutu eta jolasak egin genituen. Bazkaldu ostean, Chillida Leku ezagutzera joan ginen, plastikako tailerretan landutakoa bertatik bertara bizitzeko. Zelako eskultura itzelak!



AMAÑA



Hilabete honetan Aratosteak ospatu ditugu Amañako eskolan. Ostegun arratsaldean, desfilea egin genuen auzoan zehar. Lorez eta erlez bete genituen kaleak musika eta dantzaz lagunduta. Primeran pasa genuen elkarrekin!

ARRATEKO ANDRA MARI

Aurten igerilekuko ikastaroa urtarrilaren 26tik otsailaren 6ra arte izan dugunez, Santa Ageda bezperako koplak eskolan bertan abestu genituen zapia eta makila lagun. Gurasoekin batera, natura neguko loalditik esnatzeko, makilekin lurra gogoz astindu genuen.



LA SALLE



Aitona-amonekin eskolan jolasean egon dira 1. mailakoak. 2. mailakoak zientzialari bihurtu zaizkigu eta hilabetea bukatzeko Bakearen Astea ospatu dugu eskolan, begira geratzea aukera txarra dela azpimarratuz.

SAN ANDRES

Otsaila iritsi zaigu eta berarekin batera Agate Deuna bezperako ospakizuna. Hori dela eta, LHko ikasleak kalera irten ginen santaeskean. Errebaleen guztiok elkartu ginen, bigarren ziklokoek untzagan abestu zuten eta hirugarren ziklokoek zaharren bi egoitzak bisitatu zituzten. Goiz zoragarria pasa genuen!



ALDATZE



Santa Ageda bezperan Aldatzeko txikiek, makilak eskuetan eta tradizioari eutsiz, Ama Lurrari kantuan jardun zuten udaberriari ongietorria emateko asmoz.



TESTUA: EKHI BELAR

Zein da zuen janaririk gustukoena?

JONE: Krocketak.

CECILIA: Janari guztiak gustatzen zaizkit, baina paella aukeratuko dut.

Zein musikari edo musika-talde gustatzen zaizu gehien?

CECILIA: Miguel Bosé.

JONE: Go!azen.

Zuen aisialdian zer egiten duzue?

CECILIA: Eguneroko betebeharrak amaitzerakoan, asteburuetan kartetan jokatzeko dut nagusien egoitzan eta, bestela, nobelak ikusten ditut telebistan.

JONE: Niri margotzea gustatzen zait, eta baita katuarekin egotea ere. 'Chloe' deitzen da.

Telebistan zer ikusten duzue?

CECILIA: Nobezez gain, albistegiak, 'El Hormiguero'... eta parean tokatzen zaidana.

JONE: Azken aldian Disney-ko pelikulak eta telesailak ikusi ditut batez ere. Disney-ren aplikazioan ikusten ditut, telebista arrunta ez dut ia ikusten.

CECILIA: Niri horrek aspertu egiten nau.

JONE: Eta niri zureak!

CECILIA: Horregatik eduki behar ditugu bi telebista (barreak).

Zein da zuen pelikula gustukoena?

JONE: 'El hotel de los líos'.

CECILIA: Pelikulek aspertu egiten naute, nobelak nahiago ditut.

Zer gustatzen zaizue gehiago: hotza ala beroa?

86 urte dituen Cecilia del Rio eta 9 urteko Jone Hernandez amama-iloba elkartu ditugu Arrateko Andra Mari ikastetxean. Belaunaldi ezberdinetakoak izanda ere, badituzte gauzak amankomunean eta, batez ere, elkarren arteko maitasuna.

BIEK: Beroa.

Zein da zuen urtaro gustukoena?

BIEK: Uda.

Cecilia, nolakoa da Jone?

CECILIA: Oso neska jatorra da, oso irrifartsua...

JONE: Atzo esan zenuen beldurtia nintzela.

CECILIA: (Barreak)

Horren aurrean zuk esaten zenuena ikusteko esan nuen.

Baina egia da?

JONE: Beno, agian (barreak).

Jone, nolakoa da amama?

JONE: Oso jatorra, besteen kontuengatik arduratzen den pertsona eta ordenatua.

URKIZU



ALDATZE



J.A. MOGEL



AMAÑA



LA SALLE



ARRATEKO ANDRA MARI





ASPACE



SAN ANDRES



SARDINAREN ENTIERROA



BERBENA





ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*

Martxoarekin batera zure energia berriro piztuko da. Korrika egiteko eta plan berriak asmatzeko gogoia izango duzu.



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Poliki baina seguru ibiliko zara. Eguzki izpi txiki batek ere zure eguna asko alaituko du.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Zure jakin-mina handituko da. Galdera asko egingo dituzu eta lagunekin elkarrizketa dibertigarriak sortuko dira.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Egun argiagoez poza ekarriko dizute. Lagun bati laguntzeko aukera izango duzu eta oso gustura sentituko zara.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*

Zure konfiantza indartuko da. Zerbait berria probatzera ausartuko zara eta txalo batzuk jasoko dituzu.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Antolaketa eta ahalegina ondo uztartuko dituzu. Pixkanaka, zure lanak emaitza politak emango ditu.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Bakea eta giro ona bilatuko dituzu. Jolas edo talde lan batean bitartekari ona izango zara.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Zure intuizioa fin ibiliko da. Norbaitek zer sentitzen duen lehenengo ohartuko zara.



SAGITARIO

*azaroak 21
abendua 20*


Abentura txikiak gustatuko zaizkizu: txango bat, paseo bat edo joko berri bat. Ez zara geldirik egongo!



CAPRICORNUS

*irailak 21
urriak 20*

Arduraz ibiliko zara eta horrek lasaitasuna emango dizu. Besteek zure seriotasuna eskertuko dute.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Idea freskoak etorriko zaizkizu, udaberriko haizearekin batera. Zure sormenak lagunak harrituko ditu.



PISCIS


*otsailak 21
martxoak 20*

Fantasia eta amets giroa izango duzu. Naturak inspiratuko zaitu marrazteko edo istorioak asmatzeko.

13 EZBERDINTASUNAK



LABIRINTOA



AURKITU HITZ GUZTIAK

EGUZKI-SISTEMAKO PLANETAK

D	F	Q	N	F	L	G	K	S	O	O	E	Q	M
Y	M	L	C	I	K	P	W	M	L	H	W	K	E
I	W	J	N	E	N	E	P	T	U	N	O	B	Y
X	M	N	M	T	Q	S	Y	Y	R	B	E	L	J
Y	S	A	T	U	R	N	O	M	R	L	S	M	U
L	X	L	C	O	M	Q	J	W	A	T	C	K	P
G	M	L	G	M	A	R	T	E	T	S	U	U	I
A	R	T	I	Z	A	R	R	A	F	Z	U	Y	T
E	G	F	T	E	J	P	V	T	I	Y	H	C	E
F	Q	J	L	D	M	E	R	K	U	R	I	O	R
J	W	H	R	L	U	D	I	Y	A	L	V	L	L
P	K	T	M	I	L	B	A	R	I	U	C	J	W
U	R	A	N	O	O	M	Z	B	I	P	B	I	I
U	X	J	H	K	R	W	N	V	Q	M	F	Q	L
X	P	T	K	H	W	A	P	N	M	Q	F	L	O

ARTIZARRA

LURRA

MERKURIO

SATURNO

JUPITER

MARTE

NEPTUNO

URANO

SUDOKUA

		4		5			
9			7	3	4	6	
		3		2	1		4 9
	3	5		9		4	8
	9						3
	7	6		1		9	2
3	1		9	7		2	
		9	1	8	2		3
				6		1	

LE- HIAKE- TA

HURRENGO GAIA:
UDABERRIA
irudikatu

Bidali zure
marrazki edo
argazkiak
MARTXOAK 13
baino lehen
...eta kitto!
Euskara Elkartera
(Urkizu 11, Eibar) edo
aldizkaria@etakitto.eus
email helbidera



Aurreko asteko irabazlea



Aupa **MARKEL**,
txapeldun! Ondo baino
hobeto irudikatu dituzu
kokomokoak. Liburuak eta
...eta kitto!-ko produktuak
zuretako!
ZORIONAK!

6 urte

Kapa-ipi-xopo, igeltxo


Igeltxo hezegunean bizi zen. Ez zen sekula uretatik atera, harik eta, egun batean, eguzkiaren epela sentitu zuen arte. Kanpora salto egitea eta lurrian barneratzea erabaki zuen orduan, arriskuen beldurrik gabe. Han, kanpoan, ezagutuko ditu hizkuntza arraro bat hitz egiten duten beste igel moduko batzuk, baita Ahotzarra beldurgarria ere. Nola moldatuko da urik gabe?



8 urte

Historiaurrea

Gizakiaren jatorriaren inguruko ibilbide zabala: non bizi ziren, nola bidaiatzen zuten, zer jaten zuten, zer animaliarekin batera bizi ziren...



10 urte

Pellokeriak

Ipuin bilduma honek 2024 Mikel Zarate haur literatura saria irabazi du. Hainbat ipuin laburrez osaturiko kontakizuna da, denetan Pello izeneko mutikoa da protagonista. Kontakizunean hainbat gai agertzen dira, hala nola : eskola, familia, bulluing-a, zahartzaroa eta beste, denetan nabarmentzen dira umorea eta samurtasuna.



BITXIKERIAK

Lur
planetak **6.5**
88.000.000.000
.000.000.000.000
tonelada pisatzen ditu

"J" letra
da **taula**
periodikoan
agertzen **ez den**
letra bakarra.

Itsasoko
belakiek ez
dute ez buru, ez
aho, ez begi, ez hezur,
ez bihotz, ez birika eta
ez garunik. Hala ere,
bizirik daude.


PAKITOREN ISTORIA

EGILEAK: **TILILA, NAHIA, AITOR ETA IBAI**

Orain dela urte asko, jendea Donostiako Aquariumera joaten zen, izaki eta animalia ikaragarriak ikustera. Egun batean, bertako langileek erakusketa bat antolatu zuten eta herriko haurrak gonbidatu zituzten. Aquariumean espezie pila bat zeuden: marrazoak, izurdeak, dortokak... Hala ere, jendeari gehien gustatzen zitzaiona Pakito izurdea zen. Pakito Donostiako kostaldeko izurde bat zen, gaixotasun baten ondorioz Aquariumean bizi zena. Ederra zen.

Erakusketan zeudela, Pakito izurdeari aleta bat apurtu zitzaion eta umeak oihukatzen hasi ziren. Ondorioz, arduraduna agertu zen eta albaitariari abisua eman zion. Albaitaria etorri zenean aleta ikusi eta larritu egin zen. Itxura nahiko txarra zeukan. Hori dela eta, animalien ospitalera eraman zuten Pakito gaixoa. Han zeudela, dardo lasaigarri bat eman eta froga medikoak egiten hasi ziren. Horrela, gaixotasun arraro bat zeukala ikusi zuten eta horren ondorioz aleta hautsi zitzaiola. Hurrengo egunetan botika eman zioten eta poliki-poliki animalia hobetzen hasi zen.


Zoritxarrez, ebakuntza gogor baten ostean animaliak aleta galdu zuen. Hala ere, izurde ikaragarria zen eta mundu guztiak asko maite zuen. Beharrezko zaintzak eman ostean, hondartzara bueltatu zuten eta Bizkaiko Golkora bueltatu zen. Bertan, beste izurde batzuekin batera jolasean hasi zen.



Zu bai margolari

Zu bai

Egin zure grafittia
pareta honetan



margolari

Zu bai m

argolari

Zu

bai margolari

Zu bai

Zu bai margolari

margolari